

Hamatarpi


2018 udazkena



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala

EUSKARALDIA

EUSKARAK
365
EGUN

- 
- _ 2018KO EGUR ZOZKETAK
 - _ ARADUDI BERRIA LUDOTEKAN
 - _ GARRAIO PUBLIKOAN ALDAKETAK
 - _ MAIRU ABESBATZAREN X. URTEURRENA
 - _ EUSKARALDIA: HAMAIKA IZANGO GARA!
 - _ ZIGOITIKO III BERDINTASUN JARDUNALDIAK
 - _ PAGAZURI ATERPEAREN ONDOKO ERAIKINAREN BIRGAITZEA
 - _ IDOIA RUIZ DE APODACA, ARABAKO AURRESKU TXAPELKETAREN IRABAZLEA



04



08



06

08



09



10



12



14

Hemen eta orain

- 03 Olano Eliza beteta, *Duo Sarasate* ikusteko
- 04 Araudi berria Ludotekaren ikasturte honetarako
- 06 · 2018ko egur zozketak
· Pagazuri Aterpearen ondoko eraikina birgaitu da
- 08 EUSKARALDIA: hamaika izango gara!
- 09 Badatoz Zigoitiko III. Berdintasun Jardunaldiak Indarkeria matxistaren biktimen seme-alabak, aurtengo ardatza
- 10 *Mairu Abesbatzaren X. urteurrena*
- 11 Idoia Ruiz de Apodaca, *Oketa Alai Dantza Taldeko* kidea eta Arabako Aurreku Txapelketaren irabazlea

Kolaborazioak

- 12 **Eguneko Arretarako Landa Zentroko** berriak
- 13 Zigoitiko kondairak. **Isidro Sáez de Urturiren** eskutik
- 14 Liburutegitik, maitasunez. **Javier Arbulurekin**

Staff

HAMAZAZPI

Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2018ko udazkena

Azala: Elena Mota. Euskaraldia Zigoitia.

Editatzailea: Zigoitiko Udala_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 01138 ONDATEGI (ARABA) · T_945 46 40 41 · www.zigoitia.eus · zigoitia@zigoitia.eus

Koordinazioa:

Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@gmail.com

Erredakzioa:

Idoia Perez Gallardo · Rosa Ortiz de Mendivil

Diseinua eta maketazioa: www.hirudesign.com

Imprimaketa: www.graficasirudi.es

Ale kopurua: 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08

Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopiatzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu:
www.facebook.com/hamazazpialdizkaria



Olano Eliza beteta, *Duo Sarasate* ikusteko

Musikak interes handia sortzen du Zigoitian. Eta maite dugu. Horren adibidea da pasa den abuztuaren 25ean Olanoko Elizan egin zen kontzertua. Emanaldia Duo Sarasatek eskaini zuen, hau da, Jonathan Mesonerok (biolina) eta Mercedes Medinak (pianoa). Eta Zigoitiko herriak eliza bete zuen, musikaz gozatzeko.



Argazkiak: ...



2018ko Zergadunen Egutegia

HIRI ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA ETA EZAUGARRI BEREZIKO ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA

Borondatezko epea:
2018-05-01 _ 2018-06-30

**Helbideratutako ordainagiriak
kobratzeko data:**
Bigarren epea (kuotaren %50a)
– Urriaren hasieran

ZENTRO SOZIOKULTURALEKO IKASTAROAK

Autolikidazioa, izen-emate eskabidearekin eta ordainagiriarekin batera, zerga-ordenantzaren arabera.

ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

**INFORMAZIOA,
ZERBITZUAK ETA GESTIOAK**
Udaletxea. Telefonoa: 945 46 40 41. Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara. Faxe: 945 46 40 52, e-mail: zigoitia@zigoitia.eus

Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak

Ordaintzeko lekuak: Kutxabank eta Euskadiko Kutxaren bulegoetan. Internet bidez, web orri honetan: www.zigoitia.eus (Nire ordainketa).

Finantza-erakundeetan helbideratutako ordainketak

Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatuko du ordainketa, helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

Araudi berria Ludotekaren ikasturte honetarako

Adinaren arabera, txandak egongo dira, eta 7 urtetik beherako umeek pertsona heldu batekin lagunduta joan beharko dute Topaketa Aretora eta larunbatetako Familientzako Ludotekara



Zigoitiko Gizarte eta Kultur Zentroak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu. Horien artean, arrakasta handienetarikoa bat duena Ludoteka da. Ikasturtean, edozein egunetan, ez da zaila arratsaldeko uneren batean 30 ume elkartzeko. Asteazkenean, begirale bakar baten ardurapean. Ostiraletan, aldiz, bi profesionalak jarduten dute.

Gero eta handiagoa den eskari horren aurrean, batetik, eta kalitatezko zerbitzua eskaintzen jarraitu ahal izateko, bestetik, irailetik aurrera araudi berri bat jarriko da martxan. Berritasun nagusiak bi dira. Lehenik eta behin, erabilera-txandak ezarriko dira adinaren arabera (koadroa ikusi). Horrela, lehen txanda (haur hezkuntzakoena) 3-6 bitarteko umei zuzenduta dago; bigarrena (lehen hezkuntzakoena), aldiz, 7-11 bitarteko neska-mutilentzako pentsatuta dago.

Bigarren nobedadea da 7 urtetik beherako umeek heldu batekin lagunduta joan beharko dutela Topaketa Aretora eta larunbatetako Familientzako Ludotekara.

Zerbitzua hobetzea

Aldaketak Gizarte eta Kultur Zentrotako teknikariek eta udal arduradunek adostu dituzte, zerbitzua hobetzeko asmoz. Azaldu digutenez, "araudi berriak hobeto doitu du Ludotekaren funtzionamendua. Zerbitzu horrek jolasaren bidez ezagutza, komunikazioa eta gizarteratzea sustatzea du helburu. Eta irekita dago Zigoitiko ume, guraso, aiton-amona eta gainerako herritar guztientzat. Nahi duguna da, jolasaren bidez, txiki eta handien arteko erlazioa handitzea eta hobetzea". Bukatzeko, haur txikienek (0-3 urte bitartekoek) Txiki-txokoa eskura daukate. Euren adinari egokitutako materiala duen gune bat da eta erabiltzeko beti heldu batekin joan behar dute.

Ludotekako araudia osorik ikusteko, jarraitu Zigoitiko udal webgunearen hurrengo esteka:

<https://www.zigoitia.eus/es/servicios-municipales/cultura-y-deporte/ludoteca>



Txanda berriak

Astelehenerdik ostiralera:

17:00 - 18:30: 3 urtetik 6 urtera bitarteko umeak
18:30 - 20:00: 7 urtetik 11 urtera bitartekoak

Larunbatak:

Familientzako Ludoteka*:
18:00 - 21:00: 3 urtetik 11 urtera bitartekoak

*Larunbatero, nola familientzako Ludoteka denez, bazkide bakoitza heldu batekin joatea komeni da. 7 urtetik beherako umeen kasuan, nahitaezkoa izango da.



Zigoitiko Ludotekaren zerbitzuak:

JOLAS LIBREA

Ludotekan hainbat txoko daude jolas librea bultzatzeko, ume bakoitzak bere nortasuna adierazten laguntzeko.

TOPAKETA ARETOA

Familiaren kontziliazioa errazteko, Gizarte eta Kultur Zentroak Topaketa Aretoa bat dauka. Bertan, umeek etxerako lanak egin ditzakete, askaldu, mahai-jokoak erabili, eta abar. 7 urtetik beherako haurrek heldu batekin joan beharko dute.

KULTUR ETA GIZARTE SUSTAPENERAKO

JARDUERAK

Ikasturtean zehar hainbat heziketa-jarduera antolatzen dira. Bestek beste, lantegiak, irteerak, txapel-party-a, inauteriak, Ludotekako festa... Kasu guztietan, helburu berarekin: giza balioak sustatzea.

GURASO EDO TALDEENTZAKO ARRETA

Ludotekako langileek orientazio, aholkularitza edota informazio orokorra eskatzen dituzten gurasoak eta taldeak jasoko dituzte. Eta baita iradokizunak proposatu nahi dituztenak ere. Beti ere, alde aurretik hartutako hitzorduarekin eta Ludotekako zerbitzutik kanpo.

2018ko egur zozketak

Erreklamazio epea irekita dago urriaren 31ra arte, egurra egoera okerrean jaso dutenentzako

2018 honetako egur zozketek, aurreko urteetan bezala, ohiko prozesua jarraitu dute: herritarren-eskaera, espedientearen onespena, zuhaiztiaren markatzea, markatutako oinen mozketa, ateratzea, herrietan zehar banaketa, numerazioa, eta ausazko zozketa. Aurten, jarraian erori den euriaren ondorioz, bai egur-mozketa, bai ateratzea eta baita herriz herriko banaketa ere, atzeratu egin dira. Arabako Foru Aldundiko (AFAko) Mendi Zerbitzuaren irizpidea jarraituz, lanak egin ahal izateko lurra airatu arte itxaron behar da, ibilgailuek mendiari kalte txikiena eragiteko.

Gainera, aurten moztutako egurrei ia moztutako egurrak gehitu zaizkie. Horietako pago-egur batzuek (gainerako espezieen kasuan ez), ez dituzte biltzen AFAko Mendi Zerbitzuak eta

Zigoitiko Udalak aurreikusitako baldintzak. Hori dela eta, udalak erreklamazio epe bat ireki du, urriaren 31ra arte, egoera txarrean zegoen egurra jaso dutenak soilik konpentsatzeko.

Eskaria aurkeztu behar da

Orekatzeko erabiliko da aurten moztutako egurra, eta eramango da Larrinoa eta Ondategi artean dagoen udal lursail batera: 3. poligonoa, 423 lursaila, hain zuzen ere.

Kompentsazioa jaso ahal izateko, eskaera bat bete beharko da udal-bulegoetan, izen-abizenak, helbidea eta 2018an esleitutako egur zozketaren zenbakia zehaztuta.

Erreklamazio epea bukatu ondoren, udalak bakoitzari jakinaraziko dio esleipenaren arabera jasoko duen egur sorta.

Pagazuri Aterpearen ondoko eraikina birgaitzea



Zigoitiko Udalak birgaitu berri du Pagazuriko Aterpearen alboan dagoen eraikina. Paretak eta estalkia erabat berreraiki dira eta lehen zeuden 3 gelak egontoki bakar bat bihurtu da. Horrela, aterpea bezala egokitutako gune berri bat sortu da, erabilera librekoa, eguraldi txarreko kasuan mendizaleen babeserako. Irekita dago beti, beraz, ez da beharrezkoa giltza eskatzea eta udal tasa ordaintzea, Pagazuri Aterpeko eraikin nagusiarekin gertatzen den bezala. Honek beste zerbitzu batzuk eskaintzen ditu eta, horren ondorioz, erabiltzeko baldintzak ezberdinak dira.

Asunkortako Txabola

Bestalde, Asunkortako Txabola ere laster berreraikiko da. Muruako harrobietako goiko aldean dago eta berriro irekiko da konpondu, egokitu eta garbitu ondoren.

EUSKARALDIA: hamaika izango gara!



Hamazazpi aldizkariaren aurreko alean, joan den udaberrian, azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskal Herri osoan egingo den ekimen erraldoi baten berri eman genizuen: EUSKARALDIAz ari gara. Zigoitian ere martxan jarriko zela agindu genizuen... Eta bai, martxan dago.

Hamaika, zenbaki berezia da euskaldunontzat. Batetik, nazioarteko numerazio-sistemaren arabera, zenbaki zehatza esan nahi du, eta horrek berdintzen gaitu gainerako hizkuntzekin, beste gauza askoren artean. Hala ere, "hamaikak" badu beste adiera bat euskaraz: "asko, ugari, pila bat" ere esan nahi du. Ugaritasuna adierazten du!

Datorren azaroaren 23tik abenduaren 3ra hamaika egun igaroko dira, zehatz-mehatz. Mundu osoan izango da hala, eta baita gurean ere: horrek berdintzen gaitu gainerakoekin. Baina, hemen, hamaika egun horiek ez dute balio bera izango: ez dira egun arruntak izango. Euskaraldiak bustiko ditu bazter guztiak, eta bustiko gaitu hiltun guztiok ere. Hamaika egun soil baino gehiago izango dira hamaika egun horiek.

Euskaldunok aktibatzeke ekimena izango da Euskaraldia. Bakoitzaren euskara-mailari, borondateari eta indarrari egokitutakoa izango da, gainera. Euskararen erabilera jautsi bat ematen laguntzeko, ondorengo bi profilen artean aukeratu ahal izango dute izena ematen dutenek:

AHOBIZIEK, Euskaraldiak irauten duen 11 egunetan, euskaraz egingo diete ulertzen duten guztiei. Edonon, edonoiz eta ulertzen duen edonorekin arituko dira euskaraz.

Eta ezagutzen ez dituztenekin lehen hitza euskaraz egingo dute!

BELARRIPRESTEK, euskaraz dakiten guztiei gonbitea egingo diete, beraiei euskaraz egiteko. Euskara ulertzen dutela adieraziko dute, eta nahi dutenek beraiekin euskaraz egin dezaketela jakinaraziko dute. Beraiek euskaraz edo erdaraz erantzungo dute, unearen eta erraztasunaren arabera, baina berari euskaraz egiteko eskatuko dute!

Kopuru zehatza

Hala da: hamaika (ugari) izango gara azaroan, paparrean txapa bat jarri, eta ekimenean parte hartuko dugunak. Baina ekimena hasteko bi hilabete falta diren honetan, joan den irailaren 8an, **Zigoitiko lehenengo hamaikakoa** aurkeztu genuen jendaurrean. Argazkian ageri direnak dira Zigoitiko Euskaraldian parte hartzera animatu diren lehenengo hamaika ahobizi eta belarriprestak. Hamaika, kasu honetan, kopuru zehatza... Baina eragin biderkatzailea izango duena. Seguru gaude!

Izena nola eman, hamaika egun horietan zer egin, zalantzak argitzeko nora jo... Jakiteko gogoz zaude? Ekimenaren gaineko informazio guztia topatuko duzu gorbeialdea.euskaraldia.eus helbidean (eta baita euskaraldia.eus webgune orokorrean ere).

Indarkeria matxistaren biktimen seme-alabak, aurtengo ardatza

Badatoz Zigoitiko III. Berdintasun Jardunaldiak



Zubialde Emakumeen Kultur Elkartearen omenaldia, II Berdintasun Jardunaldietan (2017).

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortu gabeko erronka da, bai Zigoitian bai mundu mailan. Emakumeok, egunero, sexu indarkeria ezberdinak pairatzen jarraitzen dugu. Guztien artean gogorrena, emakumeen eta beren seme-alabengan egindako indarkeria fisikoa dugu. Hori dela eta, ezinbestekoa da borrokatzen eta ekimen ezberdinak sortzen eta garatzen jarraitzea. Esate baterako, Zigoitiko Jardunaldi Feministak, duela hiru urtetik hona urriaren erdian gure udalerrira iristen direnak.

3. edizio honetan, ardatz nagusia indarkeria matxistaren biktimen seme-alabak izango dira. Oso arazo larria, 2015an, Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Legearen aldaketarekin, lehenengo aldiz onartu zena. 2013tik 2018ko martxora arte, indarkeria matxistaren inguruan, 44 seme-alaba erail zituzten beren aitek, aitaordeek edo amaren senargaiak.

Hamazazpi aldizkariaren ale honekin batera, mitoak eta genero-indarkeriaren gaineko

sineste faltsuak jasotzen dituen triptiko bat aurkituko duzue; adingabeek bortizkeria matxistaren egoerak nola bizi dituzten ulertzeko informazioa, erakusten dituzten sintomak eta errehabilitazioa; Zigoitiko Gizarte Zerbitzuen informazioa; eta III Jardunaldien programazioa. Bertan, azpimarratzekoak dira, besteak beste, Zigoitiko adingabeekin lan egiten duten profesionalentzako formazio saioa eta, Norma Vazquezek, indarkeria matxistan adituak, herritar guztientzako emango duen hitzaldia.

Gorbeialdeko Kuadrillako I. Berdintasun Plana

2015ean Zigoitiko Udalak emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko lan egiteko konpromisoa hartu zuen. Horretarako, eman zuen lehenengo pausoa izan zen prozesu parte-hartzailearen bidez egindako Zigoitiko Emakume eta Gizonen arteko I Berdintasun Plana.

Planaren indarraldia aurten bukatuko da eta, ebaluatu ondoren, hurrengo pausoa jarriko da martxan: Gorbeialdeko Kuadrillako I. Berdintasun Plana. Dokumentu berri honek koherentzia emango dio kuadrillako Berdintasun Zerbitzua udal bakoitzean egiten ari den lanari, udalerrri mailako parte-hartzetik eskualde mailakora pasatuz; beti ere, udal bakoitza bere errealitatera moldatuz. Kuadrillako plana martxan doa jada, beste prozesu parte-hartzaile baten bidez, eskualdeko biztanleriak eta emakumeek, konkretuki, erabaki ditzaten, Berdintasun arloan datozen 4 urteetan ditugun beharrak, zailtasunak eta helburuak.

Hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu bere parte-hartzearekin Zigoitian eta Kuadrillan berdintasun handiagoko gizarte bat posible egiten duten lagun guztiei.

Apuntatzeko 3 hitzordu

- **Urriaren 18an, 18:00etan.** 2018-2019ko **Gorbeialdeko Irakurketa Feministaren Klubaren ikasturtearen hasiera** (euskaraz). Emakumeei zuzendutako ekintza. Hilabetean saio bat. Aldi bakoitzean Kuadrillako udal batean.
- **Urriaren 19an, 18:30etan.** Giza eta Kultur Zentroan: **Zigoitiko III. Berdintasun Jardunaldiak.** 'Invisibles, hijos e hijas víctimas de la violencia de género'; Norma Vazquez-en hitzaldia. Emakume eta gizonentzako.
- **Urriaren 22an, 18:00etan.** 2018-2019ko **Gorbeialdeko Irakurketa Feministaren Klubaren ikasturtearen hasiera** (gaztelaniaz). Emakumeei zuzendutako ekintza. Hilabetean saio bat. Aldi bakoitzean Kuadrillako udal batean.

Info + izen-emateak: Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua · 945 43 01 67 telefonoa
Email: berdintasuna@gorbeialdea.eus

Mairu Abesbatzaren X. urteurrena



Zigoitiko ahots kantariak aurten bete du bere lehenengo hamarkada. Eta gertaera garrantzitsua behar den bezala ospatzeko, oso kontzertu berezia prestatu du. Urriaren 12an izango da, San Lorenzo Elizan, Ondategin. Eta

azken 10 urte hauetan taldetik pasatu diren kantari askok hartuko dute parte. Gainera, oroimenezko aldizkari bat egin du Mairu Abesbatzak, Zigoitian etxez etxe banatuko duena, hain zuzen ere.

Idoia Ruiz de Apodaca Audicana, Oketa Alai Dantza Taldeko kidea eta Arabako Aurreku Txapelketaren irabazlea

“Orain erronka da harrobia lantzea. Txikiak eta mutilak behar ditugu”

- **Nor?** Idoia Ruiz de Apodaca Audicana, 21 urte
- **Zer?** Oketa Alai Dantza Taldeko kidea
- **Zertan?** EHUren Eibarreko kanpusean Energia Berriztagarrien Ingeniaritza ikaslea (4. ikasturtea).
- **Zaletasunak?** Neguko kirolak, euskal musika eta bidaiak. Egin duen azkenetariko bat: Suitza, Austria eta Eslovenian zehar Interraila.
- **Hurrengo planak?** Dantzan jarraitzea, gorputzak utzi arte. Eta ikasketak bukatzea. Eta lana bilatzea. Edo urte sabatikoa bidaiatzen pasatzea. Edo Dantza Garaikidea dantza ikastea. Edo...



Idoia eta Oketa Alai Taldea ikusteko, hamaika aukera daude: Zigoitia Euskaraz, Zaldien Azoka, Imanolen omenaldia, Gorbeialdeko Dantza Topaketa...

Burua ondo antolatuta duen neska dugu Idoia. “Eskematikoa” beraren ustez, oso langilea ezagutzen dutenen arabera. Eta dantzari bikaina. Maiatzaren 1ean, Estibalitzen, Arabako Aurreku Txapelketa irabazi zuen. Gure udalerrian, orain, erronka harrobia lantzea dela dio. Eta Zigoitiko amamak, Mari Lopez de Ipiñak, ilusio handiz irakurriko duela elkarrizketa hau.

- **Zorionak, Idoia! Baina, aureskua ez al da mutilen dantza?** Ikusarazi dutena hori da. Baina aureskua dator sokadantzatik. Antzinatik mutilek eta neskek dantzatu dute. Eta orain berreskuratzen ari da hori.

- **Arabako Txapelketa irabazteko, zein da gakoa?** Hanka asko altxatzea, ja, ja, ja! Eta erritmoa, estiloa, bisualki polita izatea... Eta zure buruarengan sinestea, hori ere bai!

- **Txapelketetan, saririk al daude?** Bai normalean dirua, eta oroigarri bat. Baina Estibalitzen neskentzako ez zen egon.

- **Nola da hori?** Saria berez da figuratxo bat, mutil itxurako figuratxoa, eta txapela. Nola nik irabazi nuen, ez zidaten figuratxoa eman.

Nire ustez prest egon behar duzu neska batek ere irabazteko. Gainera, txapela jartzen saiatu ziren, mototsarekin ezin jarri, ja, ja, ja! Hori anekdota bezala. Baina egokitu beharra dago.

- **Nola hasi zinen dantza munduan?** Gurasoek sartu ninduten 6 urte nituela. Beraiek gustuko dute, animatzen gaituzte, baina jakin ez dakite. Oketan sartu gintuzten ahizpa eta biok, eta aldi berean ni hasi nintzen beranduago Musiketxean, era akademikoagoan ikasteko.

- **Nola moldatzen zara Ingeniaritza ikasteko eta dantzan aritzeko?** Laguntza asko eduki dut. Musikaetxeako irakasleak entseguetan hobetzeko eta zuzentzeko gidatu nau, eta gero nik Eibarren nire kabuz matxakatu dut, asko gainera. Eta ikasketekin, unibertsitate txikia

denez, guztiok ezagutzen dugu elkar eta oso erraza da irakasleekin hitz egitea, zalantzak argitzea...

Aurten asko borrokatu dugu. Eta ondo atera da.

- **Denbora liberrik baduzu?** Ordura arte bai, baina karrerako 2. mailan Indarra Dantza Taldera igo ninduten, eta hori izan zen nire urterik okupatuena. Lagunek beti esaten zidaten: zurekin geratzeko data eskatu behar dugu, ez zaitugu jada inoiz ikusten... Eta pasa den ikasturtean, nahiko urte zaila zenez karreran, Indarra momentuz aparte utzi nuen.

- **Leku ona da Zigoitia dantzan aritzeko?** Giro aparta dago! Oketa Alai, dantza plaza, emanaldiak... Fans kluba eta guzti daukagu! Baina erronka harrobia lantzea da. 50 bat dantzari gaude, mutil gutxi eta bakarrik 5-6 txiki. Kristoren altxorra daukagu Zigoitian. Ez galtzeko, aukera ezin hobea da parte hartzea. Ondo pasatuko duzu, gainera. Kuadrilla bat gara.

- **Dantza munduan ere, beste proiektu batean ari zara.** Bai, duela 5 urte Mikel Millan txistulariarekin ‘Musikadantza’ jarri genuen martxan. Egiten ditugu ezkontzak, omenaldiak, bataioak, inaugurazioak... Kristoren lana daukagu. Baina, batzuetan, jakiten dutenean dantzaria neska dela, ez gaituzte kontratatu nahi. Estereotipoak dira.

- **Desberdintasunik badago?** Desberdina den gauza bakarra da trajea. Neskek gona, amantala eta alkandora eramaten ditugu. Gizonek prakak eta txalekoa. Eta hori bai, askoz zailagoa da gonarekin dantzatzea!

Arabako Aurreku Txapelketako Idoiarene emanaldia ikusteko:

https://youtu.be/59Xaa_im0uQ
Bideoa: **Txokomusikala**.

Idoarekin harremanetan jartzeko:
musikadantza@gmail.com

Abastos Merkatura, Alaizako Elizara eta Errioxara bisitaldiak

Adinekoek ingurua ezagutzen disfrutatzen dute

Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentroak, urtero, irteera eta bisitaldien programa oso interesgarri bat jartzen du martxan. Erabiltzaileek oso ondo baloratutako ekintzak dira, egunerokotasuna apurtzen dutelako; kanpoan egiten direlako, eguraldi ona aprobetxatuz; eta Arabako beste landa zentroetako pertsonekin elkartzea errazten dutelako. Aurten Gasteizko Abastos Merkaturia eta Alaizako Jasokundearen Eliza bisitatu ditugu. Eta, era berean, Errioxara bidaia bat egiteko asmoa daukagu. Azken irteera honen esperientzia, beraz, ezin dugu kontatu, baina aurrekoenak bai. Atsegin handiz, gainera.

Maiatzaren 18an Gasteizko Abastos Merkaturia bisitatu genuen, Langraitzeko EALZ taldearekin batera. Lekua gure zentroko erabiltzaileek eskatu zuten, plazako 2012 urteko berritze garrantzitsuen ondoren egon gabeak ziren eta. Oso goiz atsegina pasatu genuen bertan, berritutako Gasteizko merkatu enblematikoaz disfrutatuz. Zentzuentzako plazer bat izan zen, bere korridoreetan zehar paseatzea, eta betiko postuak ikustea. Egiatzatu genuen bezala, Arabako baratze eta abeltzaintzaren produktu freskorik onenak saltzen jarraitzen

dute. Bisitaldia egin ondoren, gastrotaberna batean erlaxatzeko une bat ailegatu zen. Eta aprobetxatu genuen Santa Barbara plazari begirada bat botatzeko, eta bisitako iritziak komentatzeko. Eta gogoratze ere antzinako garaia, plazara etortzen baitziren ortuak prestatu ahal izateko produktuak erostera. Bazkaldu eta elkarrekin ederki pasa ondoren, agur esan genien Langraitzekoei, hurrengo irteerara arte.

Hori ekainaren 15ean izan zen. Egun horretan Araia, Agurain, Dulantzi, Langraitz, Zuia eta Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentroak (ia 90 pertsona) elkartu ginen Alaizako Eliza polit eta berezia bisitatzeko asmoz. Bertan, gidari batek azaldu zigun nola 1982an, erreforma baten ondorioz, bertako margo bitxiak aurkitu zituzten; inguruetako elizetan ikusi ohi ez diren balio handiko margoak. Bisita hain interesgarria amaituta, Larrea abiatu ginen menu zabal eta gustagarri bazkaltzera. Bazkalondoa egin ondoren, bakoitza gure jatorri-lekuetara itzuli ginen poz pozik. Eta asetasunez beteta, konpainia ederrean egun on bat partekatu genuelako, eta gure arabar ondare zabal eta garrantzitsuko bitxi bat ikusi ahal izan genuelako.



Isidro Saenz de Urturiren eskutik

Olanoko zubiaren misterioa



Baserri izeneko barrutian, Olanoko eta Zarate arteko muga inguru horietan, errota bat zegoen, Zuiako herri horretatik zetorren errekatxoaren urak aprobetxatzen zituena, hain zuzen ere. Gaur egun, lekuan bertan, zubi baten aztarnak ikus daitezke. Harri horiek misterioz inguratutako gure udalerriko istorio bat gogoratzen dute, horren testigantza emanez. Duela urte asko, Olanoko herritarrek zubi bat egitea erabaki zuten, bertan zegoen errota harriak aprobetxatuta. Horrela, errazagoa izango zen alde batetik bestera pasatzea. Luzeraz bi metroko eta altueraz beste bi metroko egitura egitea adostu zuten eta lanean hasi ziren,

erritmo onean. Baina, guztien harridurarako, egunean egindako lana, nolabait, gauean galdu egiten zen. Egunero, obraren zati batzuk agertzen ziren ibaian. Sorgin-kontuak izango balira bezala. Inork ez zekien zer gertatzen ari zen.

Gauzak horrela, Olanokoak Zaratekoei errua botatzen hasi ziren. Eta Zaratekoak, Olanoko bati. Dirudienez, Zarateko lagunak beldur ziren Zigoitiko abereak, pasabidea gurutzatuta, euren landatara pasako zirela. Eta alderantziz. Hasieran kontatu dugun bezala, egun zubiko aztarnak hor jarraitzen dute. Ez dakiguna da ditzosozko zubia amaitu zuten ala ez.



ISIDRO SAENZ DE URTURI

‘Telebistarekin, etxeetan ez dago elkarrizketarik jada! Lehen, artoa zuritzen zuten bitartean, aurretik arrosarioa errezatu eta gero hitz egiten zuten familiek.’

Isidro Saenz de Urturik diosku hori. Etnografoa eta Euskal Herriko Etniker taldeko, Arabako Etnografia Mintegiko eta Eusko Ikaskuntzako kolaboratzailea dugu. Udalerrian egin duen lanari esker, hemen *Zigoitiarrak* saila sinatzen du, intentzio nabarmen batekin: beren abenturak irakurtzeko, familia arteko bazkalondoko elkarrizketa piztea.



Habe kakotuaren abestia

Daniel Santamariaren, Gopegiko Lagagorri auzoko herritarraren, historiaren jarraipena

Texto y selección de fotos: **Javier Arbulu**



'Los nuestros': amigos, familiares y vecinos que han ayudado a Pablo (hijo de Daniel) a colocar la corva actual. Fotografía: **Fede y Montse Santamaría**.

Irten ginenean gaua zen oraindik. Kanpoan Julian zegoen zain, zigarro-mutxikin bat ezpainari itsatsita. Aitak burua mugitu zuen eta txingarrak erantzun zuen, ipurtargi bat amildegian dantzatuko balitz bezala. Hori izan zen agurra eta seinalea. Ez zen ezer gehiago behar izan.

"Goazen!" esan zuen aitak orduan, eta ni abiatu egin nintzen. Haien atzean ibili nintzen, eskuaz bigarren idiaren bizkar beroa lagunduta. Denok batera, jaiotza ibiltari arraro bat ematen genuen, gauean barneratzen, Eguberri batean figuratxo triste horiekin udaletxean jarri zutenaren antzekoa. Hain polit eta hain triste, ezen, ondo begiratzuz gero, ematen zuela mahai gaineko tapetea utzi nahi zutela, eta gurekin jaitzi, herritarrekin, trago bat hartzera, autoritatearen zamatik urrun.

Baina orain jaiotza aldapan gora doa, isil-isilik. Aitak Federiko du izena, Julianen bizilaguna da.

Niri Daniel jarri zidaten, "Jainkoaren justizia" esan nahi duen izena. Maiatzean 10 urte bete nituen. Laranja eta gozoki batzuk egon ziren. Goiz horretan bertan habe kakotuak ulu ikaragarria bota zuen, eta pizti batek ostikada bat eman zion bularrean aitari, eta lurrean geratu zen, begiak animaliarengan iltzatuta.

Baina uda iritsi zen, eta aitak arkupeko goiko aldeari begiratzeari utzi zion. Orain, gure espartinetan hautsa pilatzen den bitartean, aitak aurrera begiratzen du. Batzuetan Juliani begiratzen dio, batzuetan itzuli egiten da, eta samurki begiratzen nau. Astigarrek eta ametzek itzala ematen dute ibilbidearen zati eder batean, baina arratsalderako guztiok zigortzen gaitu eguzkiak, bide zahar hauetan. Bide horietako izenek - Aranbe, Izua, Santamaria- belarrira ekartzen dizkirate behin Amayan ikusi nituen behizainek hiltzen edo akabatzen zituzten

lautada menderaezinen izenak.

Horren ostean ni ere behizain bat izan nintzen, isiltasunez eta berunezko kartutxerekin, osotxia nintzenetik, aitaren behiak eta idiak paseatzen nituen bidexkatik zaldiz ibiliz. Batzuetan pentsatzen dut bideko hautsa eguzkiarena dela, eguzkia trinkotutako eta kiskalitako hauts pilo bat dela, eta bidea eroritako hautsak, gizonek eta piztiak zapaldutakoak, egina dagoela.

Azkenean, orain, badakit ustez ezagutzen ditugun dugun bideak ezagun edo arraro bilakatzen direla, lanaren arabera. Ez dela berdina zaldiz ibiltzea irudimenezko kartutxeradun behizaina izanda, edo habe kakotuaren atzetik zeharkatzea. Habe kakotu baten bila joaterakoan bideak aldatu egiten direla, zabalago eta sakonago bihurtzen direla, hautsaren misterioak irentsiko balitu bezala. Gu habe kakotu baten bila goazelako.



Oinartzargi bat edo ulu bat

Lehendabizi, habe kakotu zaharrak kexu bat bota zuen. Gero aitaren bihotza hausten hasi zen. Orain haren ondoan nabil habe kokatu berria ikusi, idi gainean kargatu, etxera itzuli eta bere lekuan kokatu ondoren, aita hilko dela sumatu gabe.

Baina aitak badaki. Horregatik Julianekin batera dabil hitzik esan gabe, horregatik Julianek ere ez du tutik esaten. Horregatik bidearen isiltasunean aitaren bihotzak esaten didana entzuten dut: lehenago edo beranduago habe kakotu guztiak hausten hasten direla. Oinartzargi bat, edo ulu bat bezala jotzen duela, oinartzargiak edo uluak habe kakotuak bizitza asko bizitzen dituztela dioela eta, bakoitza bere modura, pertsona oro

habe kakotu bat dela. Aita habe kakotu bat zela, ni habe kakotu bat izan naizela eta nire semea eta nire semeen seme-alabak ere habe kakotu bakar bat izango direla, maite dituztenekin. Habe kakotua hautsi edo eraldatu egiten da, baina kanta ez da inoiz aldatzen. Baina egia da, aldi berean, bakarrik zuk erabakitzen duzula kantaren doinua zein den, habe kokatua hausten den edo eraldatzen den.

Horrela jakin zuen aitak maiatzaren bukaerako goiz horretan. Esan zion oinartzargiak edo uluak. Gero niri esan zidan hurrengo hau berari ere esan behar izan zion: "nahiz eta zuk ez sinetsi, zuhaitz batzuk, ebaki ondoren, loratu egiten dira".

sumario



Iñaki sostiene la foto del abuelo Daniel. Foto: **Iñaki Gento**.

Garraio publikoan aldaketak

Arabako Foru Aldundiak zenbait aldaketa egin ditu garraioko foru lineetako batzuetan, zerbitzua hobetearren eta nagusiki ikasleek erabil dezaten erraztearren.

Gure udalerrian, Gasteiz/Zigoitia 1 lineak geltoki berria izango du Gorostizan, eta bidaiaria abiatzeko ordua atzeratu egingo da, 15:15etik 15:30era, batxilergoko hiriburuko hainbat ikastetxetako ikasleek erabiltzea erraztearren, arratsaldeko hiruretan ateratzen baitira. Hori dela-eta, linea horretan bertan beste hiru bidaiaria

ere berregokitu beharra sortzen da: alegia, Gasteiz/Zigoitia zerbitzua, 13:45etik 14:00etara aldatzen da; Zigoitia/Gasteiz zerbitzua, 14:30etik 14:45era aldatzen da, eta, azkenik, Zigoitia/Gasteiz zerbitzua, 16:00etatik 16:15era aldatzen da.

Horrez gain, hainbat herritako Administrazio Batzarrek hala eskatuta, Gasteiz eta Zigoitia arteko gaueko azken zerbitzuak Manurga, Gorostiza, Akosta eta Zestafeko herriei emango die zerbitzua, gerturatzeko bidez, irailaren 1etik aurrera..

1 ZIGOITIA - VITORIA - GASTEIZ

ZESTIPE	ACOSTA/KOIZTZA	GOROSTIZA (Zigoitia)	ETXABARRI IBINA (Zigoitia)	MURUA	LARRINDA	MANURGA	GOPEGI	ERIBE	BURIAGA	BERRIKANO	APODANA	ETXABARRI IBINA	ETXABARRI IBINA (MG Gorbela CC)	VITORIA/GASTEIZ (Gorbela Estazioa)
ASTELEHENETIK OSTIRALERA / LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>>>														
*	*	*	06:50	06:53	06:55	*	06:58	07:01	*	07:04	07:08	07:15	07:17	07:26
*	*	*	08:20	08:23	08:25	*	08:28	08:31	*	08:34	08:38	08:45	08:47	08:56
*	*	*	09:50	09:53	09:55	*	09:58	10:01	*	10:04	10:08	10:15	10:17	10:26
*	*	*	14:45	14:48	14:50	*	14:53	14:56	*	14:59	15:03	15:10	15:12	15:21
*	*	*	16:15	16:18	16:20	*	16:23	16:26	*	16:29	16:33	16:40	16:42	16:51
*	*	*	18:40	18:43	18:45	*	18:48	18:51	*	18:54	18:58	19:05	19:07	19:16
*	*	*	20:50	20:53	20:55	*	20:58	21:01	*	21:04	21:08	21:15	21:17	21:26
							22:10					22:19	22:21	22:30
LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SÁBADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>>														
*	*	*	9:55	9:58	10:00	*	10:03	10:06	*	10:09	10:13	10:20	10:22	10:31
*	*	*	12:45	12:48	12:50	*	12:53	12:56	*	12:59	13:03	13:10	13:12	13:21
*	*	*	15:55	15:58	16:00	*	16:03	16:06	*	16:09	16:13	16:20	16:22	16:31
*	*	*	22:00	22:03	22:05	*	22:08	22:11	*	22:14	22:18	22:25	22:27	22:36

1 VITORIA - GASTEIZ - ZIGOITIA

(*Acercamiento: el autobús solo parará si las personas usuarias avisan con antelación)

VITORIA/GASTEIZ (Gorbela Estación)	ETXABARRI IBINA (MG Gorbela CC)	ETXABARRI IBINA	APODANA	BERRIKANO	BURIAGA	ERIBE	GOPEGI	MANURGA	LARRINDA	MURUA	ETXABARRI IBINA (Zigoitia)	GOROSTIZA (Zigoitia)	ACOSTA/KOIZTZA	ZESTIPE
ASTELEHENETIK OSTIRALERA / LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>>>														
07:35	07:44	07:46	*	*	*	*	08:03	*	08:06	08:08	08:11	*	*	*
09:05	09:14	09:16	*	*	*	*	09:33	*	09:36	09:38	09:41	*	*	*
14:00	14:09	14:11	*	*	*	*	14:28	*	14:31	14:33	14:36	*	*	*
15:30	15:39	15:41	*	*	*	*	15:58	*	16:01	16:03	16:06	*	*	*
18:00	18:09	18:11	*	*	*	*	18:28	*	18:31	18:33	18:36	*	*	*
20:10	20:19	20:21	*	*	*	*	20:38	*	20:41	20:43	20:46	*	*	*
21:30	21:39	21:41	*	*	*	*	21:58	*	*	*	*	*	*	*
LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SÁBADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>>														
09:10	09:19	09:21	*	*	*	*	09:38	*	09:41	09:43	09:46	*	*	*
12:00	12:09	12:11	*	*	*	*	12:28	*	12:31	12:33	12:36	*	*	*
15:10	15:19	15:21	*	*	*	*	15:38	*	15:41	15:43	15:46	*	*	*
21:15	21:24	21:26	*	*	*	*	21:43	*	21:46	21:48	21:51	*	*	*